

## 18. Jesus Segurola Urkiola 1921-2008, zumarragatarra

Komunikazioaren egilea: Iñaki Baztarrika

### 18.1. Bizitza




Izadiarenganako maitasunak eraginda milaka ordu eman ditu mendian, izadiaren mintzabidea ikasten eta euskal hizkuntzaren sustraiekin duen lotura aztertzen.

Txistuaren modernizatzaileetako bat izan zen. Eskulangile ere bazenez, hainbat egur mota probatu zituen txistuak egiteko, eta aholkulari tekniko, musika aldetik, Jose Ignazio Ansorena izan zuen.

Bien artean, urratsez urrats, aurrerapen handia egin zuten txistuak ontzen eta fintzen. Zumarragako Itziar plazan "txistulariari omenaldia" deitzen den eskultura dago jarria, Jesus Segurolak berak asmatutako irudia oinarri hartuta. Eskultura haren inaugurazioan Segurola eta Ansorena izan ziren, besteak beste.

### 18.2. Argitalpenak



Ikerketa luze baten ondotik sortu dira hemen irakurriko dituzunak. 1975. urtean LAR izeneko liburua argitaratu zuen, lan mamitsu honi hasiera emanez. 2001. urtean **IZADI ETA GIZAKI ARTEKO HARREMANETAN LAR** (Segurola argit.) publikatu zuen, lehen lan hura osatuz eta finkatuz. Hori du libururik sendoena.

Lan horren muina modu errazagoan eman nahian, argitalpen bat prestatu zuen Hauts Urdina etxeak: Izadi eta gizaki arteko harremanetan lar esplikatu nahian.

### 19.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Nola asmatu zuten euskera? Zein eratan egin zuten gure hizkuntza? Eta zein osagairekin? Euskal hitzaren jatorriaz Jesus Segurolak hau dio: Euskera izadi eta gizaki arteko harremanetik sortua da. Euskera, izadi (natura) eta gizaki (giza-jende) harremanetik jaioa dela. Hona hemen Segurolak hitzez hitz ematen duen azalpena (batuaz jarrita):

Euzkara, izadi eta gizaki arteko harremanetatik sortutako hizkuntza dugularik, euzkararen sustarrak izadiaren adierazpenarekin uztartuta behar dute. Hitz batzutan, nahiz eta hizki berdinekoak izan, sustar ezberdinekoak, adierazpen ezberdinekoak izan daitezke. Izadiak gezurrik ez duelarik, berau izango dugu euzkarako sustarraren egiztaile.

#### 18.4. Zenbait proposamen etimologiko

##### EURI

*Euri izena aitatzeraoan, eu eta ri esanaz, ur itza banandu egiten degu; horrela euri izenaren ur sustarra ainbat illuntzen zaigula.*

*Euri itzaren ur sustarrari, e izkia bere xeetasuna adieraziz, aurrizki zaio; euria ttantta xee sortzen da.*

*Euri itzak daraman i atzizki sustarrak, ttantta ugarikoa dala azaltzen digu. Euri eraso ttantta ugarikoa izaten da, ugaririk bada.*

Sekretua:

A=gauza –osagaia- (**lar**)

E=xehetasuna edo biguin (**uri**)

I= ugaritasuna (**ur**)

O=loaren sustarra (**atzo**)

U=uraren hotsa (**ur**, **uri**)

##### LAR

*Idazlan onetarako azaldu degun idazburua, LAR da. Aztertu dezagun.*

*Egintza duen L sustarra, lan onetan euzkara adierazten digun A sustarrera zuzentzen da, eta jabetasuna adierazten duen R sustarraren bidez, A euzkaragaz jabetu. LAR.*

r= -dun (-ren jabea) (**ur**)

n= -tan murgildutakoa (-ren baitan dagoena) (**tan**)

al= a-tik urruntzen dena (**alde**)

la= a-rantz doana (**lar**)

##### LOTU

Lotu itza LO su susterretik jaso da. LO atzizkia daramala, LO susterraren adierazteari jarraitu, lotuta iñoragabe geldi eusten du. Lo edo egonean

##### GAUR

Gaur itzari R susterra erantsi zaiola, gauaren jabe dela adierazten digu. Eta nola jabetasun ori azaldu? Gaurko argiaz noski. Argia degu gauaren jabe.

##### EGI

Ego itza, egiz susterraren kimu da. Egi itz onek, “egizkiak” sortzen duen argia du sorburu. Beraz, egiak argia du. Egia argia da. Era beran argia egia da. Euzkarak, egizkiaren argitan oiñarritzen dan egi jaso du.

**Jarri zuk ere arreta izadiari eta geroz eta garbiago ikusiko dezu.**

**Egia degu buru jabetzara eramango gaituen argia.**